DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK. Jose Elozegi Alkatearen hiribidean, Arzakenea Berri etxearen ondoan hasten da. Aipatutako etxeari eta beste hainbat etxe txikiri sarrera eman ondoren, Labeasko Arrobia deitzen den parajera heltzen da. Iparmendebaldera zuen norabidea aldatzen du eta orain, ekialdera Mendiola Zabala deitzen den parajea bukatzen da.		

Jose Elozegi Alkatearen hiribidean, Arzakenea Beirri etxearen
ondoan hesten da. Aipatutako etxeari eta beste hainbat etxe
txikiri sarrera eman ondoren, Labeasko Arrobia deitzen den
parajera heltzen da.

Iparmendebaldera zuen norabidea aldatzen du eta orain, ekial-
dera Mendiolaiko Zabala deitzen den parajeon bukatzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Mendiola etxe zaharra, gaur egungo baserria aurkitzen den lekutik 150 metro iparralderantz aurkitzen zen.

1862.urteko erregistroan Guruceta ó Mendiola-goya etxea azaltzen da Altza distrituko 21 zenbakiarekin.

1988.eko Martxoaren 23ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

"Alto Mirakruzeko Bidia" edo "Arzakeneko Bidia" erabiltzen dira bide hau izendatzeko, Mendiolako Bidea beraientzat eta Bidebietako auzotar gehienentzat aldiz, ofizialki Guardeplata Bidea deitzen dena da.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da, baina luzatu egin behar litzateke Mendiola
baserriaraino; noski, zati guzti hau Ulia pasealekuari ken
duta.



IZENA Molinaoko Bidea		ZENBAKIA 391
MOETA (Midea)	AUZOA Altza - Molinao	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK. Altza bide estu bat da. Basutegi bidean hasten da. Auzo- etxe eta etxe-bxiki andana baten sarbidea da. Eskalante- gi kalean, Molinao etxearen ondoan bukatzen da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Gaur Molinako auzo-etxe bat da baina garai batean, errota eta besorria izan zen.

1703, 1760, 1852, 1863, 1939.urteetan "Molinako" izenaz agertzen da.

1824, 1860, 1881.urteetan aldiz, "Molino" bezala ezagutzen da.

Inguruak Molinako, Molinillo, Molinillo eta Molino (azken hau erdalunek bakarrik) erabiltzen dituzte.

1973.eko Martxoaren 23ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

Molinaco etxearen aurrekaldean, Santo Domingo de Guzman-en irudi bat dago.

Altzan garxantzi haundikoa zen "Errosarioko Kofradia"ren santu hau da, fede honen bultzatzai lea. Irudia dirudienez, kofradia haren oroitza den bat da.

Molinaco izen gaskoina da.

Mouli.- Moulin = (Errota, Eihera)

Mouliâ.- Tout ce qui constitue le moulin y compris les terres = (Errota eta bere lur-sailak).

Neu, Nebe.- Neuf, neuve.

"Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes. Simin Pelay."

Moulinau = Molinco = (Errotaberri)

Altzakoak ziren aainako pertsonak, "Moliñoko Biddia" Santa Barbara auzoaren hegoaldeetik doan bideari deitzen diote (Altza pasealokua eta Iguzki tza baserriaren hondakinak artatzen).

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

IZENA		ZENBAKIA
Mons		333
MOETA	AUZOA	
Pasadalekua	Intxaurrondo - gurutxipi / Intxaurrondo Berri / Intxaurrondo - Mons	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Zubiurte pasadalekuan hasten da, gurutxipi auzotik eta Donostiako bariante nagusieran inguruetatik pasatzen da, alkatu berri auzo hegoaldeatik inguratzen du. Lizardiko Gurutzean, Zubiurte pasadalekuan gurutzatzen da; orain, Lizardi eta Yoyete auzuneak bere ezker aldean uzten ditu. Azkenik, Intxaurrondo auzoko eskualdeko oxoalderi sarbidea eman ondoren, Mons deritzen urbiltzearen inguruan, Juliansone bidaiari bidearekin emanez bukatzen da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Mons urbiltegi eta lantegi ("Lioorera Garnier") baten izena da. Elkarte batek bere izenetarako hartu zuen eta honela, inguru zabal batetara hedatu da.

1944.eko urtearen hasian Hirigintza Zerbitzuetako Le-nondoririk, osatutako honi "Mons" izena ezarri zen oratu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Pasealeku honen bigarren sektorea behin, "zeratogiko
bidua" deitzen zen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da. "Donostiako poligono berrietako kale
berrien izenak" lanean birplanteatua izango da.



IZENA

Nao Etxeko Kalea

ZENBAKIA

342

MOETA

(Kalee)

AUZOA

Altza - Erdialdea

**DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK
ETA LEKU INTERESGARRIAK.**

Larraundi kolearen antzera, oinezkoek bakarrik San Martzial plazaetik dute sarridea. Kimika Zientzien Fakultateari ematen dio sarridea eta azkenik, Txepiñene kalsea bukatzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Kasanao "Kasano" baserria eta oinetxea, gaur kale honen 2 zenbakia dagokion etxearen onubean kokatzen zen.

Kasanao edo Kasanoba. Altxeko baserria, 1824.urtea. Luis Maria Mujika, 1989.urtea; Euskal Toponimiazko materialak, VII aldea Donostia.

- Casanao 1882.urteko erregistroan.

Juan Bono de Casanova, 1572,1576,1582 eta 1595.urteetan sindikoa izan zen Donostian.

Juan Bono de Casanueva bezala ere agertzen da.

1976.eko Apirilaren 26ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Inguru hau kale baino gehiago, auzune bezala ezagutzen da.

Gasanao izen gaskoina da.

Lasabiélhe.- Maison vielle, ancienne = (Etxe zaharra)

Gasanabe.- Maison neuve = (Etxeberria)

Nau, Nebe.- Neuf, neuve.

"Dictionnaire du Béarnais et du Gascon modernes,
Simin Palcy".

Gasanau, Gasanabe = Gasanao/Kasanao = (Etxeberri).

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Kale honen izenarekin desitxuraketa handi bat sortu da.

Izena hartu zitzaien baserria eta oinetxea Kusanoo, "Kusanoo" deitzen zen.

Kusanoo, Kasanova, Kasanueva azaltzen da dokumentoetan.

Beraz, zuzendu behar da eta "Kusanoo Kalea" izendatu.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA Oiartzun		ZENBAKIA 344
MOETA Kalea	AUZOA Ategorrieta - Jaialai	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK. Errenderia kalean hasi eta Pasaia kalean bukatzen da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Badirudi Oiarsoetik datorkiola izena, Pliniok aspaldiko garai haietan "Saltus Oiarso" izenaz aipatzen du.

XIII.mendean lortu zuen "Villa" titulua. Errenteriaren menpe egon zen -gorabehera luzeak izan zituen bereizke ta osoa lortzeko-, 1509.urtean Batzarre Nagusietara lehen aldiz azaldu zen.

1979.eko Uztailaren 9an, izen hau onartzea erabaki zen. Ordurarte, 1938.eko Martxoaren 15eko erabakiaz "Calle del Tercio de Lácar" deitzen zen, 1936.urtean Donostia hartu zuten "Bataloi" frankista baten izena zen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Utxoki		355
MOETA	AUZOA	
Pasa. lekua	Intxaurrondo - Sagastieder	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Tturkoene kalean h. sten da, Surtintxulo auzunean hergoaldetik inguratu ondoren, Guardia Zibilaren auzuneari ematen dio orribidea. Paraje honetan bera trazarakotak zirkuluardi zuzen bidean du eta norabidea aldatuaz, Sagastieder pasalekuan bukatzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

1862.urteko erregistroan, Ochoaui etxea Altza herriko

31 zenbakiaz agertzen da.

1871-1873.urteetan desagertu egiten zen.

1862.eko Martxoaren 4ean Hirigintza Zerbitzuetako Le-

hendakariak, oraindik honi "Otxoki" izena ezartzea

erabaki zuten.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

aurrudia Zibilaren auzunea, militar zona denez
sarbidea mugatua du, beraz, pasatzeak honen
sektore handi batek (iparrekialdeak), ez du
publikoarentzat erabiderik.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da; dena dela, "Donostiako polizia berrietako
hale izenak" lanean birplanteatur izango da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Parada Baseiriko Kalea		356
MOETA	AUZOA	
(Kalea)	Intxaurrondo - Mirakruz-gaina	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Joss Elozegi Alkatearen hiribidean hasten da, Parada oinetxearen atariaren alboan. Hegoekialdeko norabidea hartzen du eta Mirakruz-Gaineko hainbat egoitza eta txaleti sarbidea eman ondoren, Artikarena egoitzaren alboan, iparrekialderako norabidea hartzen du eta bi bihurgune egin ondoren, Luis Pradera kalean bukatzen da. Egoitza eta txalet arteko bide lasai bat da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

- (1)- Etxe hau, Lope Martinez de Isasti-k 1625.urtean aipatzen du. Donostiako herresietatik kanpo dagoen oinetxe zahar bat da.
- (2)- Serapio Mujika-k "Los gascones en Guipúzcoa" (1923.urtea) liburuxkan, "Gonzalo de la Parada, franco de San Sebastián" 1261.urtean aipatzen du, Arturo Kanpionen "Gacetas históricas", "Rev. Intern. de Estudios Vascos", año IV, n.3.tik hartua duelarik.
- (3)- Miguel de Laparada Donostian sindikoa izan zen 1879.urtean eta Alkate 1884.urtean.
- (4)- Cayetano de Parada, "Jurado Mayor" izan zen 1772.urtean. Ondoren, Jose Antonio de Paradak kargu berdina hartu zuen 1776. eta 1781.urteetan.
- (5)- 1975.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Pasai San Pedro		359
MOETA	AUZOA	
Hiribidea	Bidebieta - Erdialdea /	
	Bidebieta - Gaiztarro /	
	Bidebieta - Gomistegi	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Jose Elozegi Alkatearen hiribidean hasten da, Bidebieta Erdialdea eta Bidebieta-Gaiztarro auzoei sarbidea ematen die. Ondoren, Donostiako bariante nagusiaren bukaera eta Pasaiako portuaren Herrerako kaiaren sarbideak kokatzen dira hiribide honi dagozkion Urarte auzunearen inguruan. Azkenik, Azkuene kalearen hasieran Pasaiako Udal-dermioan sartzen da, aipatu den herri honetako Euskadi hiribideari hasiera ematen diolarik.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Pasai San Pedro ("Pasages de Aquende" deitua) lehen, Donostiako auzo bat zen, 1805.urtean askatasuna lortu zuen. Denbora beretan, Pasai Donibanekin ("Pasages de Allende" deitua) elkartu eta honela, Pasaiako herria sortu zen.

Serapio Mujikak, "Los gascones en Guipúzcoa" (1923) liburuxkan, José Ignacio Gamon aipatuz hau idazten du Pasai San Pedroren sorreraz : "... desde San Sebastián se trasladaron el siglo XIV a Pasajes de su jurisdicción o sea al de San Pedro, algunos pescadores gascones que se establecieron en la villa de aquel puerto con algunas barracas para acogerse en ellas, y fueron después edificando el pueblo y una reducida iglesia a la caída del monte Mirall hacia 1467. De allí pasaron al otro Pasajes, actualmente de San Juan y lo poblaron también.

1878.eko Abuztuaren 31an Udalak, hiribide honen izena onartu zuen. Erabakiak dionez, izena erropidea. Pasai San Pedroren doalako eta Pasaia eta Donostia arteko erabitsuna baleztatzeko onartu zen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

"Bidebietako Aldapa" izenez ezagutzen zen.

Pasealeku honi, Urarte auzunea, "Casas Azules" auzunea eta Tiroko Barrera edo "Callejón del Tiro" deituriko kalea dagozkio.

Hiribidearen 41 zenbakia aurkitzen den etxearen aurrekalusean, errotulu hau agertzen da :

"Iñanien Kalea. 1974.eko Urriaren 29an Iparragiarre eta Aseginolaza'tar Iñaki hemen hil zuten" (1977.urtean jarria da).

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Petritegi		368
MOETA	AUZOA	
Bidea	Martutene - Sarrueta	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Gartziategi sagardotegia pasa ondoren eta Astigarragako Udal-dermioetan sarturik Donostia ibilbidea deitzen den galtzara aurkitzen da. Aipatu den ibilbide honetatik, Petritegi Bidea ateratzen da; bide hau Petritegi sagardotegitik pasatzen da, izen bereko isurtegiaren bukatzen delarik. Bide honen alboan Petritegi erreka berean Donostiako muga dago. Bi etxe txiki dira Donostiari dagozkionak, hauek Goikoene eta Etxetxiki dira.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Astigarragako Petritegi baserri zahar ezagun honen
izenarekin, inguru guztia ezagutzen da.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Putzueta		385
MOETA	AUZOA	
Bidea	Altza - Gaina	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Laukizeta kalea eta Marrus bidea elkortzen diren bide gurutzean hasten da eta hegoekialileko norabidea hartzen du, hainbat base- rri-etxeri sarbidea eman ondoren.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Aspaldiko bide zahar hau, Altzatik Astigarragara eta San Markosera doan herri-bidea izan da.

Bide honetan, Salegrifione baserria aurkitzen da. Etxe hau, erromes baten etxea edo erromesen ostatua izan zen, toponimoak horixe adierazten du. Etxeak gainera bere murrutetan badiu harrizko gurutze bat; ez da ahan tzi lehar, Santiomendiko ermita ere ez dela oso urrun aurkitzen eta herri-bide zahar hau haren doala.

1908.eko Martxoaren 23ko Udal plenoan, Putzueta Bidea izena onartu zen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Putzueta "Putzuta", Astigarraga Udalerriko baserri bat zen, gaur desagertua dago (gaur tailerra bat da). Bere hegomendebaldean, Artikutzako ura jasotzen duten bi urhiltegi haundi kokatzen dira.

Bide honi Anuedez baserria dagokio, bertan Francisco Arzak bertsolaria (1875-1928) jaio zen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Putzueta baserria (gaur desagertua), Astigariagako Udaltzainguan zegoen. Izen historikoa berreskuratzekotan hona hemen bide honi dagokion izena: "Pelegrin-Bidea" edo "Pelegrinene Bidea". Egokiena azken hau da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
San Antonio		393
MOETA	AUZOA	
Kalea	Herrera - Kaskorre	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Luis Pradera kalean hasten da eta Frantses kalea eta Juliensone bidea elkartzen zuzkiolarik Eguzkisoro etxarekin aintzinean, kale bezala bukatzen da. Azken aldetik den etxe honetatik malda behera, galtzara estu bat jeisten da, Jose Elsoegi Alkatearen hiribidean be hin betirako bukatzen delarik.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Kaskarreko mendileren bazolotatik doan bide zahar bat da,
Parade oinetxearen eta Herrera-ren arteko komunikabidea
da.

1975.eko Apirilaren 20ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Kale bezala ezagutuaz gain, auzune bezala ere aipatzen
da.

Orain dela gutxi arte "Ciudad Jardín de San Antonio"
bezala ere aipatzen zen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Galtzara honi aruntki, "Aldapa" edo "Maida" deitu izan zaio.

1838-1939.ko gerratea baino lehen ofizialki "Pablo Iglesias" deitzen zen. Gerra ondoren "Calzada de San Ignacio" izena ezarri zioten.

Pablo Iglesias (1880-1925), politiko espainiar eza gun bat izan zen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Altzako San Martzial plaza inguruko auzotarrek
"Herrerako malda" deitzen zuten, Herrerakoek
aldiz, "Altzako malda".

Galtzara hau osatzen duten Beltranenea, Vista
alegre, Etxeluze, Tokialai, Etxeberriaenea eta
Zeruko Atea etxeak ez dute automobilontzat sar
biderik.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



IZENA

San Luis Gonzaga

ZENBAKIA

407

MOETA

Plaza

AUZO

Herrera - Erdialdea

**DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK
ETA LEKU INTERESGARRIAK.**

Jose Eloseggi Alkatsaren hiribidetik, malda beheara doan kale batetik, plaza ertain honetara iristen da. Plaza honen mendebaldean, beste kale motz batek Peruene Zar eta Peruene Be^{re}ri etxeei ematen die sarrera. Aipatu diren bi kaleak eta plaza, San Luis Gonzaga Plaza deritzana osatzen dute.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

1907.eko Urriaren 17an auto-istripu bat gertatu zen. Mirakruz-etik zetozen bi automobilek elkar jo zuten eta plaza honetara, Etxeluze baserriaren ondora erori ziren. Bi pertsona hil ziren horietako bat, Luis Zappino zen.

Teresa Barkaiztegi bere alargunak, senararen ordinez Etxeluze baserria erosi eta bertan eliza txiki bat egitea ordaindu zuen. Azkenik 1911.urtean, eraiketa bukatu zen, auzotarrak "Zappinoren eliza" bezala ezagutzen zuten.

Eliza txiki hau urteekin haunditzen joan zen, azkenik, Herriko San Luis parrokia bihurtu zen. 1972. urtean Donostiako bariante nagusia egin zenean, eliza hau bota egin zen.

1975.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Leku hau izendatzeko, "Horrerako plaza" ere erabiltzen da.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
San Markosko Bidea		408
MOETA	AUZOA	
(Bidea)	Altza - Molinac	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Pasadi Antxotik sortzen da Donostiako Udal-darmioan, Beltzaonoa etxea da lehen zenbakia, Bilbo-Behobia autobidearen Pasaiako errepide-bitartekoaren zatia, paraleloki honekin doa hasiera batetan. Jose Azurmendi pabiloiaren aurrean, aipatu den errepide-bitartekoarekin bat egiten du. Mesedetako Ama auzunaren aurrean errepide bitartekoa utzi eta Errenteriako Udal-darmioaren nuzetara heltzen da aipatu den herri honen beraun auzoan. Oragoren, Bilbo-Behobia autobidea zubi batetik igarotzen du, beste neuribat etxe eta baserriei barbidea eman onduan, San Markos konkomunitateko zabortegietara heltzen da, auzo-bide bezala bukatzen delarik.

Azkenik, pista batetan bihurturik, Kutarroko mazaletan gora San Markos eta Txoritokieta nendien arteko lepoan bukatzen da. Bide bide luzea da : errepide bezala 3.100 metro ditu eta pista bezala 1.400 metro, denetara 4.500 metro neurtzen ditu.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

1860.urteko "Plano Topográfico de la Jurisdicción de San Sebastián" planoan "M. de San Marcos" eta "M. de Kutarro" agertzen dira. Honi euskaraz, "San Markoko Fuertia" edo "San Markoko Mendiya" deitu izen zaio.

Txipres basaria (Chipres 1862.urteko erregistroan), inguruko etxerik garzantzitsuena da.

Felix Elejalde eta Juan Erenchun-en Alza y Astigarra ga monografiak (1974) dienez Chipres abizena jadanik 1887.urtean, Pasai San Pedroko parroki liburuetan azaltzen da. Ondoren, Alza eta Erenchunariara pasa zen. Chipres etxea, Lope Martinez de Isasti-rongatik 1625. urtean aipatua da.

Artan, historia eta legenda nahasten dira. Kontatzen da Txipres "jentillek" Kutarroetik botatako harri baten gainean egina dela.

Lehen garbairan ere, bada San Jeronimoren irudi bat.

Eskola dutenez, San Markos Mendian zegoen ermita zahar batetik ekarria da.

Lehen-etxe zahar hau, tenplarioen bizi lekua ere izan da.

19. S.eko bertsoaren 20ko Udai plenoak, izen onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Militarren bidea, "Carretera militar" deitu izen zaio, izen ere, horixe zen San Markosko gotorlekura (gaur abandonatua) zihoan bidea. Bainan, erabili izan den izena, "San Markoko bidea" edo "Carretera de San Marcos" izan da beti.

Bide honi, Mesedetako Amaren auzunea degokio. Honek se rrena, "Galtzabeta"tik du, Errenteriako Beraun auzotik. Erregebide zaharrak (Donostia-Errenteria-Irun) Malingo tik Galtzarabordera zuen bera trazaketa ("Galtzabeta" toponimoa da lekuko) autobidea egin zenean moztu zen. Donostia-Errenteria arteko muga trazaketak, bi etxe er mitik bereizten ditu. Aurrin-Goia baseiria da bat; etxe honen ikuilua Donostiari degokio baina euzetiarrek errenteriarrek kontsideratzen dira.

Berdin gertatzen da Beraun auzoko "Aldakondarri kalea 1" etxaldearekin, 54 etxe-bizitza dira eta bere erua teori koki Donostiari degokio.

Pasaiako mugaren trazaketa ere ez dago oso definitua; Jose Azurmendi eraikina eta inguruko industrialdea Pasai akoak kontsideratzen dira, Ibañdo etxea aldiz, Donos- tiakoa.

Azkenik, Don Bosco Institutu politeknikoa ia osorik Errenteriakoa izan arren, zati bat Donostiari degokio.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da; dena oala garrantzi handikoa litzateke nola baita ere, Txipres toponimoa berreskuratzea. Honek gainera, posible litzateke bide luze hau bi zatitan banatzea eta bi izenak ezartzea; Txipres eta San Markos. Bestetik irtenbide bat, bi izenak batera, honela errotulatzeko litzateke :

"San Markos eta Txipresko bidea"



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
San Martzial		411
MOETA	AUZOA	
Plaza	Altza - Erdialdea	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Altzako kasko historikoak (eliza, konsejua, pilotalekua..) plaza hau osatzen du.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

1390.eko Urterilaren 10ean Martin Iruñeko apezpikuak, zurezko eliza bat egiteko bermea eman zuen. San Marzal (San Martzial), Limoges hiriko lehenengo gotzaia izan zen, historiak dienez berak ebangelizatu zuen Gas_koia.

1976.eko Apirilaren 26ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

"Altzako Plaza", "Plaza", "Eliriko Plaza" izenez ezagutzen da.

Plaza ertain hau, Altzako "bihotza" da; betidanik izan da eta gaur egun ere, izaten jarraitzen du.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



IZENA

Santa Barbara

ZENBAKIA

415

MOETA

Kalea

AUZOA

Altza - Santa Barbara

**DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK
ETA LEKU INTERESGARRIAK.**

Altza hasealekuan hazi eta Santa Barbara auzoa barnakaldotik
zeharkatuz, bertako ia auzo-etxe guztisi sarrera ematen die.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Santa Barbararen ermita, Herreratik Molinaora zihoan errepide zaharra eta Buenabistatik Altzako Plazara doan errepidearen arteko bide gurutzean zegoen, gaur Altza pasealekueren 16 zenbakia duen etxearen onuruban, (gaur egun Erroteta auzoari dagokio).

Erroteta eta Santa Barbara auzoak egin zirenean, desagertu egin zen.

1973.eko Abuztuaren 31ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



IZENA		ZENBAKIA
Sarroeta		419
MOETA	AUZOA	
Pasealekua	Martutene - Sarroeta Martutene - Mateo-Erreka	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Martutene pasealekuan hasi eta Urumea ibaiaren eskuin aldetik, Katalintxo etxea pasa ondoren, zabaldu egiten da. Mateo-Erreka industrialdearen egiazko ataria dago bere bukaeran.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Urumea ibaiaren eskuin aldeko bide zaharra da, beti inguru honetako komunikabide nagusia izan dena.

1489.urtean, Donostiako Udal Ordenantzetan Sarraota bezela aipatua da.

Mateo-Erreka Urumeara ibairatzen den parajea, Balerdiene, Bolañene eta Torruazar baserrien inguruan portu bat zegoen. "Puerto de Sarraota o del Estado" deitzen du Ricardo Izagirrek, "El Urumea y los puertos donostiarras" lanean.

1976.eko Apirilaren 26ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Aintzinatik beti, "Sarruetako bidea" izenarekin ezagutua izan da.

Katalintxoene etxetik Altzako plaza aldera doan bideari "Matioko Presako bidia" esaten zitzaion.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da, baina inguru guztian Sarrueta esaten da
beraz :

Sarrueta Pasealekua.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Sasuategi		420
MOETA	AUZOA	
Bidea	Altza - Arriberry / Altza - Errialdea / Altza - Molinao	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Auzo bide estu bat da. Bide honek bere hasiera, Arriberry auzoan du, hiru etxeri sarrera eman ondoren, Barone etxe zaharren hondakinen albotik pasatzen da. Azkenik, behara doan melda gogor bat igaro ondoren, Eskalantegi kalean bukatzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Donostiatik Iruna; Herrera, Santa Barbara, Eguzkitza, Arrieta, Molinao, Jondaberri, Galtzabeta, Galtzaraborda, Erreuteria eta Lezo-tik zehar zihoan errege bidearen zati bat zen (Eguzkitza eta Molinao artekoa hain zuzen). Gaur egun ere bere azternek, Arrieta etxetik behara bidezidorra bezala irauten dute.

Grauegi etxea, 1703.urtean Altzako Erresarioko Kofradia zerrendetan Sasuetegui izenaz aipatzen da, 1882. urteko erregistroan aldiz Sasoategui izena aipatzen da.

Garrona etxea, 1703.urtean eta zerrenda berean Badona bezala aipatzen da, Erregistroan aldiz Garrona. Azkenik, 1883.urteko "Nomenclator de la Provincia de Guipuzcoa"n Garrona agertzen da.

1998.eko artxoaren 23ko Udal plenoak, lehen aipatu den etxearen izena bide honentzat onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Bide honen hesiarako zatiak, Eguzkitzako Gaña
deitzen den gain, zabal bat zeharkatzen du.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Sasotegi baserrria ez da bide honen trazaketaren alboan aurkitzen, 200 metro hegoaldera baizik.

Bide honi, Barona Bidea edo Arrieta Bidea dagokio izen bezala.

- Barona oso etxe zaharra da, 1989.urtean erre zen eta bere hondakinak bide honen alboan kokatzen dira.
- Arrieta etxe bizitza, mende honetan eraikia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA Serapio Mujika		ZENBAKIA 425
MOETA Pascualekua	AUZOA Bidebieta - Erdialdea	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK. Juan XXIII.aren pascualekuan hasten da, mendebaldean dagoen obal-antzeko plaza batetan. Zortzi dorre handi eta hainbat etxalderi sarbidea emen ondoren, berriz ere Juan XXIII pascualekuan bukatzen da. Pascaloiku honi Boneda edo Moneda oinetxea dagokio, gaur kultur-etxe bat da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Sempio Múgica Ormaiztegin 1854.urtean jaio zen. Kronista eta historialaria, Donostiak eta Gipuzkoak eman duen historia-ikertzaile haundienetarikoa bat izan da.

Julio de Urquijoren laguntzailea izan zen "Revista Internacional de los Estudios Vascos"-en; beste lan batzuen artean, lan garrantzitsu hauen egilea da :

"Índice de los documentos del archivo del Ayuntamiento de San Sebastián. Años 1488 a 1891" (1898), "Curiosidades históricas de San Sebastián" (1900), "El Alarde de San Marcial de Irún" (1901), "El Blasón de Guipúzcoa" (1918), "Las calles de San Sebastián. Explicación de sus nombres" (1916), "Geografía del País Vasco-Navarro" (1918), "Los gascones en Guipúzcoa" (1923), "Guía de Guipúzcoa" (1930), eta "Orígenes de San Sebastián" (1935).

1941.urtean hil zen.

1978.eko Abuztuaren 11an Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Tranbia		438
MOETA	AUZOA	
Kalea	Martutene - Sarrueta	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Martutene pasealekuan hasten da, honek zubia pasatu ondoren.
Hernani-Donostia tranbia zenaren bidea jarraitzen du zati
haundi batean bederen; azkenik tranbe bide hau utzi eta Alai
auzuneari ematen dio sarbidea.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Tranbe-bide bezala egin zen hasiera batean baina galdu
denean pasealeku batetan bihurtu da.

1976.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Hau Hernaniko tranbearen trazaketaren zati bat
bakarrik da. Bertako auzotarrentzat, ez da bakarrik
hau "Tranbe-bidea" trazaketa guztia baizik.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Txapinene		445
MOETA	AUZOA	
Kalea	Altza - Erdialdea	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Larratxo pasealekuan hasi eta San Marzial elize eta San
Jose de Calasanz ikastetxearen artean, Altza pasealekuan
bukatzeko da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Txapifene baserria Altzako plazan kokatzen zen. Bota egin zen eta bere orubean sei bizitzako auzo-etxe berri bat egin da.

1862.urteko erregistroan Chapifene bezala izendatzen da.

1975.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Kile honen hasieran aurkitzen diren hamasei solairutako etxalde haundiak, "Torres de Arévalo" izenez ezagutzen dira. Construcciones Arévalo S.A., etxegile enpresa bat da.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da baina lekukoek, Txapiñene bezala ezagutzen dute. Honela izendatu behar litzateke :

Txapiñene Kalea.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Txingurri		448
MOETA	AUZOA	
Pascalekua	Herrera - Erdialdea / Herrera - Txingurri	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
San Luis Gonzaga plaza hasten da, korteko trenaren zubibidearen auzian San Inazio goitza, Ederrena kalea eta Lurugtxo pascalekuari ematen die hasiera. Ondoren, hegomendebalderako norabidean, Txingurri Industrialdea zehazkatzen du. Bihurgune handi bat egin ondoren, norabidea guztiz aldatzen du -orain hegokialdeko norabidea hartzen du-. Azkenik, Lurugtxon sarturik, aliatu den auzo honen hegokaldean bukatzen da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Donostiako bariante nagusia, Bilbo-Jehobia autobidea
egin zen arte (1970.urtean), ibar gozo eta polit bat
zen.

Guor egun lur-sail guzti hauek errepideaz gurutzaturik
daude.

1975.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu
zuen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Txirrrita Bertsolariaren Pasealekua		449
MOETA	AUZOA	
(Pasealekua)	Altza - Larratxo / Altza - Jolastokieta	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Larratxo pasealekuan hasi eta auzo bereko etxaldeen sarbideen
enaren ondoren, Jolastokieta auzoan sartzen da eta zeharkatu
egiten du. Azkenik, Herrera pasealekuan bukatzen da Gure Ame
tsa etxearen alboan.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Joxe Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita", gizon ospetsu eta itzal haundiko bertsolaria, Hernaniko Urumea entitatego Latxe baserrian jaio zen, 1860.urtean. Errenteriako Zamalbide auzoko Txirrita baserrira bere familiarekin bizitzera joan zen. Urte batzutara familia Altxako Oazteluene baserrira etorri zen eta baserri honetan Txirritak bere bizitza iragan zuen. Bertsoak kantatzeko asmotan Goizuetara zihoala, bidean gaizki jaio eta Otxera itzuli zen. Handik hiru egunetara hil zen, 1936.eko Ekainaren 3an.

1976.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Pasealeku honetako erakuntzarik gehienak etxalde
haundiak dira.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Txurdiñene		451
MOETA	AUZOA	
Bidea	Altza - Gaina	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Putzueta bidean hasten da, Irasuene-goia baserriaren aurrean. Eso batek, Txurdiñene baserriari ematen dio sarbidea. Ondoren, baserri-bide hau Gazteluene baserriaren atarian bukatzen da, estrata edo gurdi-bide bezala jarraitzen duelarik. Malda behera, Bilbo-Behobia autobidearen ingurura heltzen da. Berriz ere baserri-bide bihurturik, beste bost etxeri ematen die sarbidea. Azkenik, aipatu den autobidearen azpian bukatzen da (Bost-Bidieta deitzen da parajea), Artxipi bidea bertan hasten delarik.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Herri-bide zahar bat da. Lau baserriren sarrera den bide honek, Altza-Gaina Molinaoko inguruarekin komu nikatzen zuen.

1862.urteko erregistratzen honela izendatzen dira :

Gaztelu	"Gazteluena"
---------	--------------

Churdiñene	
------------	--

Sorda Arzac	"Sorda"
-------------	---------

Galentene	
-----------	--

Joxe Manuel Lujanbio Retegi "Txirrita" bertsolari haundiak, Gaztelune baserrian iragan zuen ia bere bizitza osoa eta bertan, 1936.eko Ekainaren 3an hil zen.

1938.eko Martxoaren 23ko Udal plenean, Txurdiñene bi dea izena onartu zen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Gaztelueneko Malda, Gaztelueneko Aldapa eta Gaztelueneko Estrata izenez ezagutua izan da betidanik bide hau.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

"Gazteluene Bidea"edo "Gaztelueneko Estrata" izena,
arrazoi historikoengatik eta baita lekukoen eskae-
rengatik dagokio galtzara honi.



IZENA Ubarburu		ZENBAKIA 455
MOETA Pasealekua	AUZOA Martutene - Mateo Erreka	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Balerdiene baserriaren inguruan hasten da, Mateo-Errota industrialdeko hainbat lantegiri sarbidea ematen diolarik. Aienas baserriarenak ziren lur-sailetatik aurrera, Astigarrageko Udal dermioan sartzen da. Ondoren, Ubarburu baserriarenak ziren lur-sailek (hauek Astigarrageko herriari dagozkio) zeharkatzen ditu eta azkenik berriz ere Donostian sartuz pasealeku berean sartzen da, Aienas ko lur-sailetan.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Ubarburu, 1863.urteko "Nomenclator de la Provincia de Guipúzcoa"n azaltzen da. Beti Astigarragako Galtzaur auzokoa izan da etxe hau.

1976.eko Apirilaren 28ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Pasealeku hau eta bere ingurune guztia, "Poligono 27"
izenarekin ezagutzen da.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Inguru guztia Mateo Erreka bezala ezagutua izan da beti;
eta Ubarburu (gaur desagertua den baserria) Astigarraga
aldekoa zenez, bide hau Mateo-Erreka Pasealekua izendatzea
bidezkoa izango litzateke.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Ulía		456
MOETA	AUZOA	
Pasealekua	Ulía - Barbotegi eta Mirall / Ulía Mendia / Bidebieta - Erdialdea	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Ikusmira eder eta zabaleko pasealeku hau Jose Elozegi Alkatearen hiribidean hasten da eta Buskando urbiltegia eskuintetik inguratzen du, alde berean ere izen bereko etxea uzten duelarik. Barbotegi baserria pasa ondoren, beti bihurtuak egiten malda leun batez gora, Monpaseko arroken gainean norabidea guztiz aldatuz Palazio Gorria deiturikoa inguratzen du. Hortik aurrera, Mirall Mendia zeharkatzen du eta Mendikoetxeberriko plazara heltzen denean bide estu batean bihurtzen da. San Juan-Gaina atzean utzirik, Atximas-Gainara iristen da. Hemen bukatzen da automobilentzat bidea. Ondoren mendibidea jarraitzen duelarik, Mendiola baserrira heltzen da. Hortik aurrera, Mendiola deitzen den mendia ere zeharkatzen du eta Pasaiaiko kanalaren gaikaldera iritxi ondoren Platako Itsasargian bukatzen da.

Donostiako kale-izendegiko biderik luzeena da : 4.800 metro inguru ditu Atximas Gainaraino; Plataraino 2.200 gehitu eta 7.000 metro izatera heltzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Mendi honi Ulia ez ezik Folia eta Mirall ere deitu izan zaio.

1860.urteko "Plano Topográfico de la Jurisdicción de San Sebastián" mapan "Monte de Mirall" izenaz azaltzen da.

1975.eko Apirilaren 25ko Udal plenoak, izena onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Beti bide hau izendatzeko "Uliako Kamiyua" edo
"Carretera de Ulia" izenak erabili izan dira;
zinez polita eta ikusmira ederrekoa da. Urtee-
tan aldaketa haundirik gabe iraun du gaur arte.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da, bere hasieratik Atximas-Gainaraino. Leku honetatik Mendiolara, baserri honen deitura daraman bidearen izena luzatu behar litzateke, izan ere aipatu den baserrikoak ere honelaxe nahiko luteke.

Pasaia bokalearen gainean (Gurutzeta mendiaren inguruan), Platako farola edo itsasargiari bidea ematen dion galtzarri beste izen bat dagokio, zeren bide hau Pasaia San Pedro tik igotzen baita; Uria Menditik guztiz aparte izen bat aukeratzearren, hona hemen bidezkoenak;

- Platako Itsasargiaren Bidea.

Bertako Itsasargia edo Farolaren izena.

- Ingeles Bidea.

Gurutzeta Mendian kokatzen dira Ingeles Fuertia = Fuente de los Ingleses o Fuente del Almirante eta honen iparraldean : Ingeles-Iturri = Fuente del Faro.

- Plateta Bidea.

Farolaren azpikaldeko arlastra "Plateta" deitzen da, faroa ere "Plata" deitzen delarik.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Z. naordegi		403
MOETA	AUZOA	
Bispa.	Intxaurrondo - Julinasene	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Julinasene bidartekin batera, non pasealekueren buketoren
inbent da, balde bonoreko eta herriakaldako norbidean eg-
kongra hiltzen zenean, iparrakialdeko norbidean igo-
ritzen da. Azkenik, Julinasene baserriaren atarieran alba-
n buketzen da. Hainbi etxe-txikiren ataridera da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Zendakotzi otxer, 1860.urteko "Plano Topográfico de la Jurisdicción de San Sebastián"en agertzen da. Dena dela, gertse daitoke, garai hartan desagertu zela, zeren eta 1862.urteko erregistroan ez baita agertzen. 1861.eko Martxoaren 16ko Udak plenotik, izena onartu zuen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Zaratogi		470
MOETA	AUZOA	
Pasalekua	Intxaurrenondo - Larrutxipi / Intxaurrenondo - Gaztelu / Intxaurrenondo-Pollizari Intxaurrenondo- Berri / Intxaurrenondo-Jagastiedar	

DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.

Larrutxipi kalean hasten da, Gaztelu eta Don Basco auzoak
bere ezkerretik utzi ondoren, Lizardiko Gurutzean Mons
Josekua gurutzatzen du. Ondoren, Donostiako bariante
nagusia gurutzatu ondoren, plaza zirkular batetan bukatzen
da, haren Tburtocho kalea eta Zaratogi pasalekarekin
elkartzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Etxe hau, Lope Martinez de Isasti-k 1845.urtean eratu zuen du, Donostiako hainbatetik kanpo zegoen bide batez zehar
bat zen. 1862.urteko errogiaren erregistroa etxearen aurre-
tzen da.

1871-1873.urte bitartean desagertu zen.

1882.eko Gertakarien eta Hirigintza Zerbitzuaren Lehen-
urtean, posatu zen honi "Zerbitzu" izena ezartzea esaki-
tu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Pasatoku hau eta bere hainetako sektoreak, "Marrutxipiko Alaba" edo "Marrutxipiko Bida" deitzen zen.

Zinotegi baserri-mendeberdura eta bere alboan, murrutzar handi batzu zeuden, gotorleku batzuk zihuratski. "Santa Margarita" deitzen zitzaion.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da. "Donostiako poligono barrietako kale berrien izenak" lanean birplanteatua izango da.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA Zedro		ZENBAKIA 472
MOETA Plaza	AUZOA Sidebieta - Gaiztarro	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK. Zumardi pasealekuarekin batera hasten da eta beso bat berriz ere, alipatu don pasealekuan sortzen da. Beso nagusia, automobilentzat irteerarik gabeko plaza bat tan bukatzen da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Lur-seil hauek, Seizterro familiaren jabetza ziren.

Beraiek, etxegintza enpresa bat sortu zuten, eta
egin zuten poligono barriaren barnean, plaza bakoitzari
goi-gehiago pascaleku bat den hau eratu zuten.

1978.eko Abuztuaren 31ko Udal plenoak, izena onartu
zuten.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Baiztarrorun jauregia zenaren lorategietan, neurriz
urtain den Zedro atlantika motatako bat aurkitzen
da.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da, baina ez da plaza, pasadulekua baizik;
habeto litzateke honela izendatzea :

Zedro Pasadulekua.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Zilargiñene		474
MOETA	AUZOA	
Bidea	Altza - Molinao	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Baserri bide estu bat da. Eskalantegi kalean, Molinao etxearen ondoan hasten da. Malda gora gogor batetik, Iparragirre baserrira heltzen da, eta hau pasa ondoren, Iparragirreko kaskora igotzen da. Azkenik, Alamoï baserriaren atarian bukatzen da. Handik nurrera, oinezkoen bide bezala jarraitzen du behin-behineko Bost-Bidista inguruan bukatzen delarik.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Zillargillene baserria, Bost-Bidieta deitzen zen paraje ederrean aurkitzen zen. Bilbo-Dehobia autobidea egin zenean bota zen.

1882.urteko erregistroan Sillarguille izendatzen da;

1883.urteko "Nomenclator"en aldiz Sillarguillene.

Iparragirre baserria ere erregistro eta "Nomenclator" beretan, gaur duen izen bardinez azaltzen da.

1945.eko Martxoaren 28ko Udal plenoak, lehen aldiz den baserriaren izena, bidearentzat onartu zuen.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

Bide honek, "Iparragirreko kaskua" zeharkatzen du eta baseari honen izenaz deitzen zaio :

Iparragirreko Bidea.

Landarroko Industrialde berriaren proiektuan, bide honen trazaketa osoa sartzen da, hau dela eta, alda keta haundiak gertatuko dira inguru honetan, etorki zunean desagertzera doalarik.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izena Zillargillene da eta ez Zilargiñene. Dena dela bide honi, Iparragirre Bidea edo Alamoriako Bidea dagokio izen bezala.

Auzotarrak, Iparragirre Bidea izena ezartzeko eskaera egi nez, hainbat txosten bidali dizkiote Udalari.

Landarrok Industrialdearen proiektuan, bide honen trazaketa osoa sortzen da, etorkizunean desagertzera doalarik.



ARANZADI
ZIENTZI ELKARTEA
DONOSTIA

DONOSTIAKO KALE - IZENDEGIA

IZENA		ZENBAKIA
Zubiaurre		478
MOETA	AUZOA	
Pasealekua	Ategorrieta - Jaialaiko Aldapa/ Intxaurrondo - Marrutxipi / Intxaurrondo San Luis / Intxaurrondo - Don Bosco / Intxaurrondo - Pellizar / Intxaurrondo - Mons	
DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK ETA LEKU INTERESGARRIAK.		
Jaialaiko tunelaren ondoan hasten da eta bere ezker aldean beti Norteko trenbidea alboan duelarik, eskuin aldetik <u>Jai</u> alaiko Aldapa, Marrutxipi, San Luis eta Don Bosco auzoei sarrera ematen die. Zubiaurre etxera eta izen bereko zubi- ra heltzen delarik, Pellizar eta Mons auzoen behe aldeko sarbidea da. Azkenik eta 1.300 metro inguru egin ondoren, Garroko zubiaren alboan bukatzen da.		

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Trenbide alboko gurdibide bat zen. Mende honetan sarturik, bere luzera guztian bi etxe bakarrik aurkitzen ziren : Nabasene eta Filipene baserriak. Geroztik, Lamourous komentua, Atsedenetxe jauregia, Zabaltoki etxea, Pellizar eta Zubiaurre baserriak egin ziren.

1936-39.urteetako gerratearen ondoren hainbat etxe, auzune eta auzo egin dira, bide estu txiki bat zen honen inguruan. Egiako Galtzara Zaharraren luzadura bezala kontsideratua zegoen.

1975.eko Apirilaren 28an Udalak, gaur duen izena onartu zu en.

IZEN HERRITARRAK, IZENGOITIAK, JAKIN GARRIAK.

"Deutsche Schule" ikastetxe alemana aurkitzen zen orubea, auzotarrek "Atsedenetxe" edo "Atzendientxe" deitzen dute.

Lamourous ikastetxea 1928.urteen egina da. Marie Charlotte de Lamourous fundatzailea, bordelearra zen.

Ategorrietakoa zen Zebaltoki etxea pasa eta Altza Udal-dermioko mugan, Atsedenetxe jauregiko lorategiaren harresian aurkitzen zen.

Pasealeku honek izena, Zubiaurre deitzen den etxetik hartzen du.

1934.urteen egin zen. Baserria, sagardotogia eta jatetxea izan da. "Artikutza" izengoitiaz ezagutzen zen. Haleziaz kontatzen zenez, sagardoa saldu beharrean "pitarra" sagardo baino gehiago ura zena eskeintzen zuten.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.



IZENA

Zunardi

ZENBAKIA

466

MOETA

Pastoralekua

AUZO

Sidebieta - G. i. tarro

**DESKRIBAPENA, LEKUTASUNA, KOKAPENA, ERAIKUNTZAK
ETA LEKU INTERESGARRIAK.**

Zuzen puzazalekuarekin Lasoro hasten da eta baso batek, Jaso. Elorogi Alkatzauren hiribidera irteera du. Jaso nagusia aldiz, San Pedro hiribidean bukatzen da.

HISTORIA LABURRA, IZEN ZAHARRAK, IZEN-ALDAKETAK.

Lur sail hauek, Gaizturro familiaren jabetzara ziren.
Derwick, etxegintza enpresa bat sortu zuten eta egin
zuten poligono berriaren barnean, pasaleku hau egin
zuten.
1871.eko Abuztuaren 11ko Udal pleneak, izena onartu
zuen.

IZEN-BAIEZTAPENA EDO ALDAKETA-PROPOSAMENA.

Izen egokia da.